

# AZALDU ETA ULERTU (2006-2017)

Kulturaren Euskal Behatokiak  
hamarkada bat


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Obra honen erregistro bibliografikoa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan kontsulta daiteke: [www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac/](http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac/)

**1. Edizioa:** 2017ko abendua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa,  
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

**Internet:**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

**Egileak:** Cristina Ortega Nuere eta Isabel Verdet Peris

**Diseinua eta maketazioa:** Mirentxu Gabikagogeaskoa

**Argazkia:** 20020610\_01\_0025, Eduardo Chillidaren eskultura, de Mikel Arrazolarena.

**Iturria:** Irekia/Eusko Jaurlaritza, CC BY-3.0-ES. **Moldaketa:** Mirentxu Gabikagogeaskoa.

# EDUKIAK

- 4** Hitzaurrea
- 5** Sarrera
- 6** Kulturaren Euskal Behatokiaren sorrera
- 8** Ibilbide luzeko proiektu baterako oinarriak finkatzea
- 12** Estatistika-lan kualitatibo handiak
  - 12       Estatistika-eragiketa nagusiak
  - 14       Bestelako estatistika-azterlanak, Behatokiak berak edo lankidetzan egindakoak
  - 16       Azterlan kualitatiboak
    - 16           Konparazio-azterlanak eta jardunbide egokiak identifikatzea
    - 17           Digitalizazioa kultura arloan
    - 18           Kulturaren alderdi ekonomikoak eta gizarte-itzulkina
    - 19           Gai berriak
- 22** Ondorio gisa: KEBa eta nazioarteko agenda kultura-arloan
- 24** KEB: 10 urte testuinguruan kokatuta
- 26** KEBa datuetan
  - 26       KEBaren produktu nagusiak
  - 27       KEBaren estatistika nagusiak
  - 28       KEBaren aurrekontuak (eurotan, 2006-2017)
- 29** Eranskinak
- 29** Erreferentziak

# HITZAURREA

*Kulturaren Euskal Behatokiak* (OVC-KEB) hamar urte bete ditu. Urtemugak balantzeak egiteko eta etorkizuneko erronka berriak proposatzeko une egokiak izaten dira. *Kulturaren Euskal Planaren* (PVC-KEP) barruan sortu zen Behatokia, euskal kultura-sistema egituratzeko elementua izateko asmoz, betiere kultura-arloan zegoen informaziorik eta ezagutzarik ezari erantzutearren.

Behatokia euskal kultura-sektoreari buruzko azterketak eta prospekzioak egiteko tresna-hornitzaile nagusia da. Horretarako, kultura-arloko eztabaidei erreparatzen die, galderak egiten ditu, hipotesiak proposatzen ditu, metodologiarik egokiena bilatzen du, emaitzak kontrastatzen ditu, datuak itzultzen ditu, interpretatu egiten ditu eta haien baliagarritasuna balioesten du. Independentziaren, zorrotasunaren eta gardentasunaren balioetan oinarrituta, ikertzera, arakatzera eta hausnartzera bideratzen da. Horrela, bada, urteak joan, urteak etorri, informazio-banku zabala osatu du, baita azterlan kualitatibo ugari ere, kultura-eztabaidetan puri-purian zeuden gaiei buruz. Baina Behatokia bezalako erakunde bat izatearen balioa ez da neurtzen soilik egindako lanaren kopuruari begiratuta, baizik eta bereziki garrantzitsuak diren bi alderdiri begiratuta.

Lehenik, kultura-politika eratzen duen elementua da, ez politika jakin baten zerbitzura dagoen tresna. Euskadiko kultura-sistema elikatzen duen erakundea denez, multzo osoaren ikuspegi kritikoa izateko moduko erdigunean kokatuta dago, erabakiak hartu ahal izateko eta politika berriak proiektatu ahal izateko gunean. Hartara, informazio-emaile ez ezik, errealitatean bertan inplikatzeko den, jarduten duen, parte hartzen duen eta hausnartzen duen eragile ere bada, kultura-ingurune heldua, ondua sortzeko lagungarri izanik. Ekarpenak egin eta eragina izateko asmoz. Eraldatzeko borondatearekin.

Bigarrenik, Behatokiak eskaintzen duen zerbitzuak kalitatezko adostasuna bermatzen du. Kulturari, eremu publikoak, pribatuak eta komunitarioak bat egiten dute. Harreman-sistemak gero eta irekiagoak eta konplexuagoak diren honetan, ezagutzarekin lan egiten duen erakunde bat izateak adostasuna lortzea ahalbidetzen du, beharrezkoa den informazioa eskaintzen baitu testuinguruan kokatuta eta erabakiak arrazoituta hartzeko baliagarri. Erabakiak hartzen, adosten, politikak hitzartzen laguntzen du, argudio sendoekin.

Eta hain justu kultura eremu konplexua delako, garapen indibiduala eta kolektiboa ahalbidetzen duen eremua delako, horregatik jarraitu behar dugu Behatokiaren alde lan egiten. Kultura-politika garrantzitsuak burutu ahal izateko; zentzuz ebaluatu ahal izateko; kulturari oinarrituta gizarte hobea lortu ahal izateko.

Memoria honetan, lan emankorreko hamarkada baten laburpena egin dugu. Bidaia hau egitea ezinezkoa izango zatekeen kultura-eragile guztien konplizitate gabe. Irakur ezazue, bada, ziur bainago Behatokia, gu guztion tresna hori, hobeto ezagutzen lagunduko dizuela.

Bingen Zupiria Gorostidi  
Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua

# SARRERA

Argitalpen honen bitartez, *Kulturaren Euskal Behatokiak* (OVC-KEB) 2006. urtean sortu zenetik gaur arte egin duen lanaren ikuspegi panoramikoa eskaini nahi dugu. Hamarkada bete lan orrialde bakan batzuetan laburtzea ez da lan erraza, alabaina. Horregatik, argitalpen honen asmoa ez da KEBak denbora tarte honetan egin dituen proiektu guzti-guztien zenbaketa zorrotza egitea –esan dezagun, bide batez, informazio hori unean-unean argitaratzen dela, gardentasunari jarraikiz, urteko **memoria** eta **jarduera-planetan**–, denboraren araberako kontakizuna egitea baizik; eta KEBaren historia azaltzeaz gain, ibilbide honetan guztian izandako gertaera garrantzitsuenetako zenbait nabarmendu ere egingo ditugu.

Horrela, bada, gure ibilbidea 2006. urtean hasiko da, KEBa lanean hasi zenean. Behatokia euskal kulturaren gidaplana izango zen plana garatzen ari zen unean sortu zen: 2004. urtean onartutako *Kulturaren Euskal Plana* (PVC-KEP). Gero, KEBaren hasierako urteetako jarduera deskribatuko dugu, une haietan zehaztu baitziren erakundearen jarduera bideratuko zuten ildoak, kontzeptuei, teknologiari, informazio eta komunikazioari eta harremanei zegokienez. KEBaren zutabeak nola eraiki ziren deskribatu ondoren, egindako **estatistika-lanak eta ikerketa kualitatiboak** aztertuko ditugu, eta hiru lan-multzo nagusi bereiziko ditugu, ahal den heinean, irakurketa historiko egituratua eskaini ahal izateko: estatistika-eragiketa nagusiak; bestelako estatistika-azterlanak, guk geuk edo elkarlanean egindakoak; eta ikerlan eta azterketa kualitatiboak. Kontakizuna amaitzeko, KEBak egindako lana Europako eta nazioarteko kultura-arloko ikerketa-agendarekin bat datorrela adierazten duen hainbat ohar azalduko ditugu.

Amaieran, denbora-lerro bat aurkeztuko dugu, KEBaren gertaera garrantzitsuenak bisualki azaldu ahal izateko, eta gainera, gertaera horiek Euskadiko politikaren eta kulturaren errealitateko gertakari garrantzitsuen testuinguruan kokatuko ditugu, neurri handi baten, KEBaren bizitzarekin bat etorrira, baita Europako eta nazioarteko kultura-arloko beste gertakari garrantzitsu batzuekin ere. Azkenik, bi infografiaren bitartez, alde batetik, KEBak 10 urte pasatxo hauetan izan dituen emaitza nagusiak eta, bestetik, **estatistika-arloko eragiketa eta azterlan nagusiak** grafikoki laburbiltzen saiatu gara. Azken irudian, KEBaren aurrekontuak 2006tik 2017ra bitarte izan duen bilakaera ikusiko dugu.

# KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIAREN SORRERA

*Kulturaren Euskal Behatokia* (KEB) 2006. urtean sortu zen Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari atxikitako zerbitzu moduan, Euskal Autonomia Erkidegoan kultura-arloko informaziorako, dokumentaziorako eta ikerketarako zentro izateko.

KEBaren aurrekari hurrena 2004. urtean onartutako *Kulturaren Euskal Plana* (KEP) da; KEPan 2007. urtera bitarteko jarduerak biltzen ziren, eta 2015era arteko lan-adierazleak; milurteko berriarekin batera, 2000. urtean sortutako *Kulturaren Euskal Kontseiluak* (KEK) dinamizatu zuen plana. Euskal Autonomia Erkidegoko kulturaren gidaplana izango zen horretan, eragileek kultura-sistemari buruzko AMIA (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak, Aukerak) azterketa egin zuten. Aukeren atalaren arabera, "Euskal kultur esparrua deskribatzen duten estatistiken bilduma zehatza eskuratu behar da, kulturaren behatoki baten bidez" (Eusko Jaurlaritza-Kultura Saila, 2004, 36. or.). Era berean, "Kulturaren Euskal Behatokia" 2004-2005 urtean abiaraztea aurreikusita zegoen, eta 2006-2007rako Behatokiaren egitura sendotuko zela; izan ere, KEParen egiturazko organoetako bat izan behar zuen, Kulturaren Euskal Kontseiluarekin eta Kulturaren Erakundearteko Batzordearekin batera (ibidem, 59. or.). Horrela, bada, KEBa sortzea lehentasunezko jarduera-lerrotzat jo zen KEParen 2. ardatzaren barruan: "EAEko kulturaren egoera eta bilakaerari buruz sistematikoki informatzeko eta segimendua egiteko sistema eta sektorekako plan estrategikoak eta egoeraren azterketak egitea" (ibidem, 66. or.).

KEPan ezarritako aurreikuspenari jarraikiz, 2006. urtean ofizialki sortu zen KEBa, dekretu baten bidez; dekretu horretan, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari esleitzen zitzaion behatokia zuzentzeko eginkizuna. 2009. urtean, Kulturako sailburuaren berariazko agindu baten bitartez urrats bat aurrera egin zen KEBaren eginkizunak, esku-hartze arlo edo eremuak, informazio-tresnak, zerbitzuak eta KEBak sortu behar zituen produktuak arautu eta zehazteko prozesuan. Agindu horren arabera, KEBak KEKarekin, Erakundearteko Batzordearekin eta KEParen Batzorde Bereziekin lankidetzan jardun behar zuen, betiere kulturaren arloan politikak formulatu, kudeatu eta jarraipena egiten inplikaturako erakunde guztien jarduera koordinatua izango dela bermatzearen.

KEBa eratu duten dokumentu eta erregulazioetan kulturaren kontzeptu zabala baliatzen dute, nazioartean arlo horretan izan diren azken garapenen ildoei jarraikiz. Horren adierazgarri dugu KEBaren

**Kulturaren Euskal  
Behatokia sortzea  
lehentasunezko  
jarduera-lerrotzat  
hartu zen 2004ko  
Kulturaren Euskal  
Planaren  
ardatzetako  
batean.**

jarduketa-arloen zehaztapena –Kultura Sailaren aipatutako agindu horretan agertzen da–; honako hauek biltzen ditu: 1) kultura-ondarea (arkeologikoa, arkitektonikoa, etnografikoa, industrialak, museoak, liburutegiak, artxiboak); 2) sormen eta adierazpen artistikoa (antzerkia, musika, dantza, literatura, arte plastikoak), eta 3) kultura-industriak (argitaletxeak, fonografia, ikus-entzunezkoak, multimedia, kultura digitala, eskulangintza-industriak eta komunikabideak). Hiru arlo horiek Europako eta nazioarteko ikerketaren ildo nagusiekin bat datoz gaur egun ere. Laugarren puntu batean zeharkako arloak txertatzen dira, Behatokiaren jarduketa-arlotzat hartuta; hartara, are eta jarduteko marjina handiagoa esleitzen zaio Behatokiari.

KEBaren sorrera, halaber, kultura-behatokiak sortzeko joera orokorrago baten esparruan ulertu behar da. Kultura-behatokiak jakintzaren gizartearen testuinguruan sortu ziren, informazioa kudeatzeko eta modu eraginkorrean erabiltzeko aukera ematen duen mekanismotzat, informazio hori jakintza bihurtu eta transmititu ahal izateko (UNESCO, 2005). Hori horrela izanik, kultura-behatokien helburuak dira kultura-sektoreari informazioa ematea, komunitate baten kultura-errealitatea aztertzea, kulturaren inpaktuak ikusgai egiten laguntzea eta etorkizuneko egoera zein izango den aurreikustea (Ortega Nuere, 2010). Zehazki, behatokiaren gortaldia XX. mendearen amaieran koka daiteke Europan eta, zehazkiago, laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erdian. Izan ere, 2010. urteko ikerketa baten arabera, une hartan existitzen ziren kultura-behatokiak % 50 baino gehiago 1995-1999 bitartean sortu ziren, 1970. urtea baino lehen sortutako behatoki "aitzindariak" ehunekoa ere garrantzitsua zen (% 14), baita 1992-1994 aldirian eta 2000. urtea baino geroago sortutakoena ere (% 14, bi kasuetan) (ibidem). Azken multzo hori handia da Europa eta mundu osoa aintzat hartuz gero, eta KEBa ere azken multzo horretan sartzen da; aurretik sortutako edo garaikide dituen beste behatoki batzuen ikaskuntzen iturritik edan zuen, aurrerago azalduko dugunez –KEBak egindako nazioarteko sinergiak aipatzen ditugunean–.

Inguruko eta nazioarteko egoera politiko horretan sortu zen KEBa, EAEko kultura-errealitate konplexu eta bizia azaldu eta ulertu behar zuen erakundea, betiere errealitate horren berezotasun eta konexioak aintzat hartuta eta testuinguru global aldakor eta interkonektatuarekin dituen hurbiltasun eta distantziei erreparatuta.

# IBILBIDE LUZEKO PROIEKTU BATERAKO OINARRIAK FINKATZEA

KEBaren hasierako ahaleginak oinarriak finkatzera bideratu ziren, erakundeak gerora egingo zuen lanaren, produktuen eta zerbitzuen sostengu. Horrela, bada, lau jarduera-bektore zehaztu ziren hasieran eta lehenengo urteetan modu bereziki orekatuan landu ziren. Hona hemen lau bektoreak: 1) kontzeptuen bektorea, KEBaren estatistika-lanaren oinarri izan beharko lukeen **estatistika-esparruaren** diseinuari dagokiona; 2) informazioaren bektorea, estatistika propioak egitearekin, lehendik badiren estatistika-datuak sistematizatzearekin eta txosten eta azterlan kualitatiboagoak egitearekin loturik; 3) teknologiaren bektorea, estatistika-informazioa sortzeko eta gordetzeko beharrezkoak diren plataforma teknologikoak diseinatzeari dagokiona, eta, azkenik, 4) komunikazioaren eta harremanen bektorea, komunikazio-jarduerekin eta erakunde nahiz sektoreekiko harremanekin lotura duena. Lehen etapa honetan, egiturari dagokionez zera nabarmendu behar dugu, KEBak arduradun bakarrarekin ekin ziola lanari 2006. urtean, eta egitura hori hazi egin zela 2010. urtean, bi plaza gehiago sortuz: estatistikaria eta web-kudeatzailea.

**Kontzeptuen eta teknologiaren bektoreek oso garrantzi handia izan zuten Kulturaren Euskal Behatokiaren hastapenetan, lehenengoaren bitartez etorkizuneko jardueretarako estatistika-esparrua zehaztu baitzen eta, bigarrenaren bitartez, estatistika-informazio hori kudeatu eta gordetzeko aukera emango zuen informazio-sistema teknologikoa.**

Kontzeptuen eta teknologiaren bektoreek oso garrantzi handia izan zuten 2006. eta 2007. urteetan, hau da, KEBaren hastapenetan. Lehenari dagokionez, estatistika-esparrua diseinatu aurreko urrats modura, 2006. urtean, KEBaren lehenengoetako egitekoa zera izan zen, UNESCOren eta Europar Batasunaren informazio-sistemen (Eurostat) ezaugarriak aztertzea eta Quebec, Frantzia, Espainia eta Kataluniako esperientzien berri jasotzea. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan garai hartan zen kultura-arloko estatistika-informazioa aztertu zen. Lan hori abiapuntu hartuta, 2006an KEBaren eredu kontzeptualaren oinarritzko dokumentuaren zirriborroa prestatu zen. Prozesu hori KEBaren jarduera nagusia izan zen 2007an ere, urte horretan zehaztu baitzen behin betiko **kultura-informazioko sistema**, hau da, kultura-adierazleen sistema: KEBaren ikerketetan aztergai izango ziren 15 sektore zehaztu ziren, informazio-iturri eta guzti, baita sektorean kontrastatzeko jarraitutako lan-metodologia ere. Prozesu hori funtsezkoa izan zen etorkizunean modu sistematiko eta sistematizatuan lan egin ahal izateko oinarriak finkatzeko, baina, horretaz gain, balio estrategikiko handiko prozesua ere bada, horren ondoriozko estatistika-programaren bitartez ezarri baitziren KEBak etorkizunean egin beharreko ibilbidea markatuko zuten jarduketa- eta ikerketa-lehentasanak.

2013. urtean estatistika-esparrua berraztertu egin zen, nazioko eta nazioarteko kulturaren eta politikaren testuinguruan sortutako garapen



berriei jarraikiz: "Europa 2020 Estrategia" sortu zen; kultura kontsumoan eta ekoizpenean eragina duten aldaketa teknologikoak gertatu ziren, eta gertakari horiek aztertzeko eran ere sumatu behar da aldaketa hori; eta azkenik, kultura-estatistikak garatzeko bide berrien premia sortu zen, politika publikoekin eta estatistika-planteamendu handiei ekiteko aurrekontu-gaitasunarekin lotuta.

Teknologiaren bektoreari –alegia, estatistika-informazioa sortzeko, gordetzeko eta bistartzeko plataforma teknologikoak diseinatzeari– dagokionez, 2006. urtean aurretiazko hainbat azterlan egin ziren estatistika-arloko kudeaketa-sistemei eta euskarri teknologikoei buruz, KEBaren berriazko lanerako aukerarik onena aurkitzeko asmoz. 2007an aukerak aztertzen jarraitu zen, eta aukera baten ala bestearen alde egiteko garaian lehenetsi beharreko irizpideak finkatu ziren. Irizpide horien artean, datuak modu pertsonalizatuan hautatzeko aukera emango zuenaren alde egin behar zela erabaki zen, informazioa zabaltzeko eginkizunari dagokionez; halaber, datuak behetik gora biltzeko aukera eta hainbat eragileengandik bildutako datuak gordetzeko eta kudeatzeko aukera ere eman beharra zuen. Era berean, hautatutako plataformak beste sistema batzuekin bateragarria izatea eta datu-transferentzia egin ahal izatea bermatu behar zuen, esaterako, Eustat -Euskal Estatistika Erakundea-rekin edo EIN -Estatistikako Institutu Nazionala-rekin. Erakundeen arteko sinergiaren eta baliabideak optimizatzearen adierazgarri, azkenean, Gazteen Euskal Behatokia [estatistika-adierazleak](#) argitaratzeko eta modu dinamikoan kontsultatzeko une hartan garatzen ari zen aplikazioa KEBaren berezitasunetara egokitzea erabaki zen. Teknologiaren alderdian, 2008. urtean estatistikako taulak bistartzeko eta informazioa modu dinamikoan kontsultatzeko diseinua burutu zen, eta lehendik zen informazioa PC-Axis formatura egokitu zen. "Estatistika - Kultura Ohiturak, Praktikak eta Kontsumoa Euskal Herrian" azterlanaren lehen edizioa urte hartan argitaratu zen, eta aplikazio sortuberriaren bitartez zabaldutako lehenengoa izan zen.

Hasierako urte haietan kontzeptuak eta teknologia diseinatzeak lana izan zen eginkizun nagusia, baina KEBaren beste jarduera-arlo batzuetan –informazioaren eta komunikazio-harremanen arloetan– ere aurrerapen handiak egin ziren eta ondorengo garapenentarako funtsezkoak izan ziren. Informazio-lanaren ildoan sartzen dira KEBak egindako estatistika-eragiketak eta bestelako azterlanak, eta horri dagokionez, 2006. urtean, ziren estatistikak sistematizatu eta hainbat adierazle hautatu zituzten. Urte hartan, halaber, KEParen azterlan sektorialen laburpenak egin ziren (azterlan horien laburpen exekutiboak 2007an zabaldu ziren) eta 2007an bi estatistika-eragiketa egiteko aurretiazko azterketak egin ziren: alde batetik, "Kultura Ohiturak, Praktikak eta Kontsumoa Euskal Herrian" azterlana eta, bestetik, "Finantzaketa eta gastu publikoa kulturaren EAE" azterlana; azken horretan, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek kultura sektorerara bideratzen dituzten diru-partidei buruzko estatistika-informazioa biltzen da. Aurretiazko azterlan horietan oinarrituta,

2007. urtean bi proiektu nagusi horiek lantzen jarraitu zen eta, horietatik, Euskadiko kultura-errealitatea informazio gehiagorekin kudeatzeko eta hobeto ulertzeko beharrezkoa den informazio asko eskuratu zen. Zehazki, 2007an –KEBaren jarduneko bigarren urtean–, kultura-arloko ohitura, praktika eta kontsumoari buruzko estatistikaren diseinuan sakondu eta landa-lana egiten hasi zen, eta finantzaketa eta gastu publikoari buruzko azterketaren proposamena zehaztu eta galde-sorta diseinatu zen. Lehenengoaren emaitzak 2008. urtearen amaieran argitaratu ziren eta, bigarrenaren kasuan, 2009an pilotu bat egin zen eta estatistika osoaren emaitzak –2008ko datuekin– 2011. urtean argitaratu ziren.

KEBaren hasierako urteetan, bi estatistika-eragiketa garrantzitsu horiek abiarazteaz gain, informazioren bektoreari dagokionez, azterlan gehiago egin ziren eta sektorea hobeto ezagutzeko garrantzitsuak izan ziren hainbat produktu sortu ziren. Horrela, bada, 2007. urtean, estatistika-esparruan lehentasunezko zatitako 15 sektoreetako eragileen direktorioen lehenengo zirriborroa prestatu zen. Urte berean, aurreko urtean lehendik zegoen estatistika-informazioa sistematizatzeko eta tratatzeko abiarazitako ildoari jarraikiz, estatistika-taulak bistaratzeko une hartan sortzen ari zen PC-Axis aplikazioaren arabera egokitu ziren liburutegietako eta museoetako aurreko bi aldietako datu-baseak, baita euskal kulturaren errealitatearen irakurketa partziala egitea ahalbidetzen zuten datuak zituzten adierazle sektorial eta zeharkako adierazle nagusiak ere, KEBaren webgunearen bitartez datu horiek zabaltzearen. Bi azterlan sektorial ere aztertu ziren: “Antzerkiari eta dantzari buruzko azterlana” eta “EAEko azpiegituren mapa”. Azkenik, KEPa ebaluatzeko sistema bat diseinatzen hasi zen, beste esperientzia batzuk jardunbide egokitzat hartuta eta planaren Idazkaritza Teknikoarekin elkarlanean. Ez dugu ahaztu behar horixe zela, hain justu, KEBari hasiera-hasieratik esleitutako eginkizun nagusietako bat.

KEBaren kanpo harremanen eta komunikazioaren ikuspegitik begiratuta, lehendabiziko garai honetan diseinatu eta argitaratu ziren, halaber, hurrengo urteetan jarduerak ezagutarazteko euskarri izango ziren hainbat produkturen lehen edizioak. Esate baterako, 2007an argitaratu zen lehenengo *Kultura 07* kulturari buruzko urteko txostena, eta *Kulturkaria* *buletinaren* lehenengo bi aleak bidali ziren garai hartan jada 2.000 harpide zituen datu-base batera. Gainera, KEPak 2006an egindako azterlan sektorialen laburpen exekutiboak argitaratu ziren; zehazki, honako sektore hauetakoak: argitalpen-industria, industria fonografikoa, digitalizazioa, liburutegiak, museoak, ondare etnografikoa, artisautza, ikusizko arteak. Beste gertaera garrantzitsu bat 2007ko azaroaren 14an, 15ean eta 16an izan zen, Donostian; izan ere, EKBak I. Nazioarteko Jardunaldia antolatu zuen kultura-behatokiekin, eta honako hauek hartu zuten parte: Observatoire de la culture et des communications du Québec (Kanada), Département des études, de la prospective et des statistiques (DEPS,

Frantzia); Osservatorio culturale del Piemonte (Italia), Departament de Cultura de la Generalitat de Catalunya eta Consellería de Cultura e Deporte de la Xunta de Galicia. Jardunaldiaren lehenengo bi egunetan parte-hartzaileek barne-lana egin zuten eta azkeneko eguna jendaurrekoa izan zen; hortaz, KEBa gizarte osoari aurkezleku izan zen jardunaldia. Hurrengo urteetan jardunaldien edizio gehiago egin ziren (guztira, lau), eta eragile horien arteko harremanak sendotu egin ziren.

Harremanen arloan aipatzeko gertaerak dira KEBaren webgunea sortzea 2007an, eta 2008. urtean “**Estatistiken eta azterketen bilduma**” osatzen hastea. KEBaren webgunea erakundearen atari bihurtu zen; erakundeari buruzko informazio guztia biltzen du eta informazio hori aldizka eguneratzen da urteko **jarduera-plan** eta **memorien** bitartez; horretaz gain, webgunea euskarri ere bada eta bertan kontsulta daitezke estatistika, azterlan, argitalpen eta komunikazio-material guztiak. Bestalde, 2007. urtean, webgunearekin batera, intranet bat ere sortu zen, KEBaren lantaldearentzako lanerako gune; 2009. urteaz geroztik, estatistikak modu dinamikoan kontsultatzeko tresna herritar oroaren esku jarri zen webgunearen bitartez. “Estatistiken eta azterketen bildumari” dagokionez –paperezko argitalpenak eta argitalpen digitalak dira–, seriearen lehenengo argitalpenean kultura-arloko ohitura, praktika eta kontsumoari buruzko estatistikaren emaitza sintetikoak argitaratu ziren, lau liburukitan, lurralde-eremu bakoitzeko bat (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea, Ipar Euskal Herria eta Euskal Herria). Azkenik, 2009. urtean hedabide berri bat sortu zen: *Kulturklik*; informazio-atari horretan azterlanei buruzko informazioa, jardunaldiak, bibliografia, esperientziak eta abar biltzen dira.

Bukatzeko, harreman-jarduera gero eta biziagoa izan da urteen poderioz, baina lehenengo urrats modura, 2006. urtean KEBaren jendaurreko aurkezpenak egin ziren eta 2007an, KEParen idazkaritza teknikoarekin koordinazio-bilerak egiteaz gain, beste lurralde batzuetan hainbat jarduera ere egin ziren, hala nola “Indicadores culturales en España: usos, necesidades y estrategias” (Valentzia, maiatzak 9-10), Autor fundazioak/SGAEk antolatuta Servici d’Assistència i Recursos Culturals de la Diputació de València zerbitzuarekin batera; KEBaren ordezkariak ponentzia batean hartu zuten parte.

# ESTATISTIKA-LAN KUALITATIBO HANDIAK

“Kultura Ohiturak, Praktikak eta Kontsumoa Euskal Herrian” estatistika-lana izan zen, lehen esan dugunez, KEBak egindako lehenengo estatistika-eragiketa handia; emaitzak 2008an argitaratu ziren. KEBaren estatistika-programa lehen fruituak ematen hasi zen, beraz, estatistika handi horrekin; berariazko bi eremu ditu aztergai: alde batetik, kultura-arloko produktu eta zerbitzu eskaria ezagutzea eta, bestetik, kultura-eskaintzaren berri izatea. Hurrengo urteetan, KEBak eskaintako kultura-arloko informazio-sistema zabaldu egin zen, arian-arian, lan ugariaren bitartez. Lan horiek hiru bloke nagusitan bereiz ditzakegu: estatistika-eragiketa handiak, lehenengo eta behin; bestelako estatistika-azterlanak –Behatokiak berak edo lankidetzan eginak–, bigarrenik; eta ikerlan edo azterketa kualitatiboak, azkenik.

## Estatistika-eragiketa nagusiak

Hasierako urteetan abiarazitako ildoari jarraikiz, 2008an **estatistika-eragiketa** handiak egiten jarraitu zen. Horrela, bada, 2009an amaitu zen “Finantzaketa eta gastu publikoa kulturean” estatistikaren pilotua; EAEko erakunde nagusietan egin zuten, hau da, Eusko Jaurlaritzan, Foru Aldundietan eta hiru hiriburuetako udaletan. Azterlan pilotuaren ondoren, estatistika horren lehen edizioa –2008ko datuei buruzkoa– 2010. urtean amaitu zen eta 2011n aurkeztu zen jendaurrean. Estatistika hori denboran egonkor izaneko serietzat sortu zen eta hurrengo urteetako edizioekin elikatzeke asmoa zuten; hori horrela dela, estatistika horrek kulturean egindako gastu publiko bateratuaren bertsio globala eskaintzeaz gain (2008. urtean 510,2 milioi euro izan ziren, biztanle bakoitzeko 234,8 euro), hornidura publikoaren eta sektore pribatuari emandako babesaren arteko erlazioari buruzko informazio zehaztua ere ematen zuen, edo kulturaren azpisektoreetan izandako inbertsio-mailen bidez gauzatutako lehenetasun politikoak zeintzuk ziren, besteak beste. Estatistika-eragiketa horren bigarren edizioa 2011. urtean abiarazi zen, 2010eko datuak bilduko zituen, eta 2012an argitaratu zen. Urtebete geroago, 2013an, hirugarren edizioa jarri zen martxan. 2014an hirugarren edizioa ezagutzera eman ostean, laugarren bertsioan 2016an eman zuen azken eguneratzea, 2014ko datuei buruzkoa. Lau edizio horien bitartez (2008, 2010, 2012 eta 2014), kulturean izandako finantzetari eta gastu publikoari buruzko aldizkako informazioa eskaini da eta, horri esker, azterketa sakona egiteko aukera izateaz gain, zifra horiek denboran zehar zer nolako bilakaera izan duten ere jakina da.

**2011n aurkeztu zen  
“Finantzaketa eta  
gastu publikoa  
kulturean” (2008)  
estatistikaren  
lehenengo edizioa;  
horren arabera,  
kulturean egindako  
inbertsioa 510,2  
milioi euro zen,  
biztanle bakoitzeko  
234,8 euro.**

2008. urtean KEBaren estatistika-proiektu handietako beste batean ere aurrera egin zen: “Arteei eta Kultura-industriei buruzko estatistika”.

**KEBaren  
estatistika-eragiket  
a nagusiak honako  
hauek dira:  
"Kultura Ohiturak,  
Praktikak eta  
Kontsumoa Euskal  
Herrian"  
estatistika,  
"Finantzaketa eta  
gastu publikoa  
kulturan", "Arteei  
eta  
Kultura-industriei  
buruzko  
Estatistikak" eta  
"Artxiboei buruzko  
estatistika",  
bakoitzari  
dagozkion edizioak  
aintzat hartuta.**

Zehazki, urte horretan estatistikaren proposamen metodologikoa zehaztu zen, informazioa biltzeko galde-sortak diseinatu ziren eta landa-lana esleitu eta martxan jarri zen. Hurrengo urtean, 2009n, "Arteei eta Kultura-industriei buruzko estatistikak" azterlanaren lehenengo edizioa amaitu zen, 2007ko datuekin. Hasieran, errolda bidezko estatistika horrek argazki estatikoa eskaintzen zuen oraindik; alabaina, aurrerapauso garrantzitsua izan zen, informazio asko eskaintzen baitzion jendeari arte eszenikoen, musikaren eta ikusizko arteen sektoreei buruz, ekoizleei buruz eta sortutako jarduerari buruz –sormenarekin, produktibitatearekin, ekonomiarekin eta enpleguarekin lotuta–, baita eskaintzari buruzko informazio zehatza ere. Estatistika horren bigarren edizioa –2009ko datuekin– abiarazi zen 2010eko bigarren seihilekoan, eta 2011. urtean burutu ziren datuak tratatzeko, ustiatzeko eta aztertzeko lanak. Bigarren edizio horretan, liburugintzaren eta diskogintzaren sektoreak ere txertatu zituzten. 2012an hirugarren edizioa abiarazi zen, 2011ko datuak biltzeko; edizio horrek behin betiko sendotu zuen estatistika hori, eta EAEn kulturaren sektoreak eta sormenezko ekonomia esaten zaionak zer nolako egoera bizi duten jakiteko informazio-iturri ezin hobea bihurtu zen, betiere ekoizpenaren, emanaldien eta merkaturatzearen ikuspegitik begiratuta. 2013. urteko eta 2015. urteko datuak biltzen dituzten edizio berriekin eguneratu da aldizkako estatistika.

2009an, gainera, beste estatistika-eragiketa garrantzitsu bat abiarazi zen: "Artxiboei buruzko estatistika"; haren helburua EAEko artxiboen egoerari buruzko erradiografia zehatza (giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak, artxiboetako dokumentu-ondarearen tipologia eta bolumena, jarduera, azpiegiturak eta zer zerbitzu eskaintzen dituzten) egitea zen. Erradiografia hori dokumentu-ondarearen arloan lehendik baziren estatistiken osagarri izan zen. Estatistika egiteko landa-lana 2010ean burutu zen, eta 2011n aurkeztu ziren lehen edizio horretako emaitzak. 2011. urtean, gainera, KEBak IRARGI Euskadiko Kultura Dokumentazio Zentroarekin koordinatuta aztertu zituen datu horiek, eta lan bateratu horretan oinarrituta txosten bat idatzi zuten: EAEko 302 artxibo zer egoeratan zeuden deskribatzen zuen, udal-artxiboek egoera orokorrean zenbateko pisua zuten egiaztatu zen (% 86,4), zenbat enplegu sortzen duten (792 langile 2009an), eta erabiltzaileei zer zerbitzu eskaintzen dizkieten, besteak beste. Era berean, datuak tratatu egin zituzten KEBaren webgunean kontsulta dinamikoa egiteko moduan jarri ahal izateko.

KEBaren estatistika-eragiketa nagusiak honako hauek dira: "Kultura Ohiturak, Praktikak eta Kontsumoa Euskal Herrian" estatistika –KEBaren berriazko leheengon estatistika-lana–, "Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan", "Arteei eta Kultura-industriei buruzko Statistikak" eta "Artxiboei buruzko estatistika", bakoitzari dagozkion edizioak aintzat hartuta; eragiketa horiei guztiei esker, KEBa lanean hasi zenetik lerro historiko bat egin dezakegu, eta Behatokiaren lanaren eta lehentasunezko ildoan zati garrantzitsu bat osatzen dutela esan dezakegu.

Horregatik guztiagatik, eta prozesua beti mailakatua izaten den arren, 2011. urtean aldaketa handiak gertatu ziren KEBaren antolamenduan eta baliabideetan eta, horren ondorioz, planteamendu berriak eta pentsatzeko modu berriak sortu ziren. Horrela, bada, KEBaren funtsezko zutabea –estatistika, alegia– osatzen hasi zen sektore berriekin, eragiketa berriekin eta eragiketa handien edizio berriekin.

## **Bestelako estatistika-azterlanak, Behatokiak berak edo lankidetzan egindakoak**

Deskribatutako estatistika-eragiketa handi horietaz gain, KEBak berak edo beste erakunde batzuekin lankidetzan azterlan gehiago ere egin ditu, estatistikakoak halaber. 2008. urtean, esaterako, euskarazko kultura-eskaintza eta kultura-eskaria zenbatekoa zen jakiteko aurretiazko hurbilketa egin zen, urte hartan bertan argitaratutako Arteei eta Kultura-industriei buruzko estatistika sektorialetan jasotako datuetan oinarrituta. Aurretiazko beste estatistika-azterlan batean, komunikabideak izan ziren aztergai eta, zehazki, prentsarako, irratirako, telebistarako eta interneteko bitarteko berrietarako dagoen informazioa bildu zen.

Lankidetzan egindako estatistika-azterlanaren adibide bat da 2009. urtean egindako “Kultura-eremuko enpleguak eta lanbideak” azterlana da. KEBak gai hori aztertzeke egindako lehen hurbilketa izan zen, eta informazio-iturriak hautatu eta aztertu ziren enpleguak identifikatzeko, baita okupazio-aukerak jada garatu zituzten esperientzia eta sistemak ere. Elkarlanean jarduteko mekanismoa ezarri zen Eustatekin, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin eta INEMen Behatokiarekin, sektoreak zenbateko enplegua sorrarazten duen eta kulturarekin lotutako lanbideak zeintzuk diren jakiteko, eta gaiari buruzko informazioa eskuratzeko tresna iraunkor bat diseinatu ere egin zen. Lehen txostena egiteko INEMeko datuak erabili baziren ere, harrezkero Lanbiderekin elkarlanean jardun izan da eta Lanbidek aldi-aldi igortzen ditu KEBra enplegu-eskariari eta kontratuei buruzko datuak. 2010. urtean erakunde horiek eskainitako estatistikak ustiatu ziren eta, gainera, KEBak berak, Kultura Sailak (Liburutegiak, Museoak eta Artisautza) eta beste iturri batzuek (Kultura Ministerioak, esaterako) sustatutako estatistika-lanak sintetizatu ziren. Helburua zera zen, EAEn kulturak zenbateko garrantzi ekonomikoa duen jakitea, hiru gako-eremu aztertuta: enpresak, enpleguak eta lan-merkatua kultura-profesionalei dagokienez. Bi hurbilketa-lan horien atzetik, 2013an informazio-eskaerak helarazi ziren erakunde laguntzaileetara hirugarren txostena egiteko eta 2014an argitaratu zen txostena. 2016an, laugarren txostenean, jarduera ekonomikoa berriak (arkitektura, publizitatea, bideo-jokoak, itzulpengintza eta interpretazioa, eta kultura-hezkuntza) sartu ziren eta albiste-agentziei buruzko datuak ere zabaldu ziren. Horrela, bada, azterketarako beste eremu bat txertatu zen, Sormenezko Industriak, eta 2013ko eta 2014ko datuak bildu ziren.

**2016. urtean,  
lehenengo aldiz,  
EAEko  
kultura-arloko  
estatistika  
adierazle nagusien  
sintesia egin zuen  
KEBak.**

2009. urtean egindako estatistika-azterlanei dagokienez, sormena babesteko politikei buruzko ikerketa bat ere aurkituko dugu; arlo horretako jardunbide egokiak aztertu ziren Frantzia, Britainia Handia, Suedia, Danimarka, Norvegia eta Holanda, eta EAEko errealitatera estrapolatzeko moduko ikaskuntzak ondorioztatu ziren. Horretan oinarrituta, epe labur, ertain eta luzera begirako balizko agertokiak proposatu ziren. Ikaskuntza horiek oso baliagarriak izan ziren 2011. urtean Eusko Jaurlaritzak "Sormen Lantegiak" programa proposatu eta abiarazteko; programa hori sormenezko enpresei eta sortzaileei laguntzeko da.

2010-2012 epealdian, KEBaren lana, estatistikei dagokienez, eragiketa handietara bideratu zen hein handi batean, eta 2013. urtean, **estatistika-azterlanak** indar handiz agertu ziren berriro ere KEBaren jardueretan. Urte hartan lehenengo txostena egin zen, "Arteei eta Kultura-industriei buruzko Estatistika" azterlanetik ondorioztatutako 10 adierazletan oinarrituta. Oinarrizko adierazle horien bitartez, argazki kuantitatibo koherentea lortu ahal izan zen, aldaketak adierazteko gai eta erraz ulertzeko moduko adierazleak baitziren eta EAEko kulturaren bizitasunaren eta aniztasunaren berri ere ematen zuten. 2013an ere adierazleetan oinarritutako beste txosten bat landu zen, eta Eustatek eskaintzen zituen adierazleetatik kulturarekin alderdiren batean bederen gurutzatzen zirenak hautatu ziren. Zehazki, Familia Gastuaren Estatistikako, Informazioaren Gizartearen Inkestako (IGI enpresak) eta Irakaskuntzaren Gastuaren eta Finantzaren Estatistikako adierazleak hautatu ziren. Lan horien ildoari jarraikiz, 2016. urtean KEBak EAEko kultura-arloko adierazle garrantzitsu guztien lehen sintesia egin zuen.

Azkenik, 2013. urtea bereziki garrantzitsua izan zen KEBaren jardueraren estatistikaren dimentsioan, hurrengo urteetan jarraipena izango zuten bi panel sortu baitziren. Panel horiek berrikuntza handia izan ziren kulturaren eremuan, eta joerei buruzko informazioa ematen dute. Lehenengoa "Arteen eta kultura-industriren azterketa-panela" da; eragileen lagin estrategiko bati –2013an egin zen laginaren proposamena– luzetarako azterketa edo panel bat aplikatu zitzaion, jarduera-mailaren, egoera ekonomikoaren eta sektoreetako errealitatearen pertzepzioaren gaineko datuak aldizka eskuratzearren, betiere "Arteei eta Kultura-industriei buruzko Estatistikak" azterlanaren edizio batetik bestera izaten diren aldaketa bizkorak jasotzeko. Lehenengo proposamen horretan oinarrituta, 2014-2015 biurtekoan "Arte eta kultura-industriren Enpresa Konfiantza Adierazleen (EKA) panela" abiarazi zen; 70 enpresako lagin estrategiko bat zen, arteen eta kultura-industriren enpresek negozioaren egungo egoeraren eta epe laburrerako espektatiben inguruan dituzten pertzepzioak jakiteko. 2016. urtean, kontsulten bi jasoaldi egin ziren –sei hilean behin egiten ziren– eta horien emaitzen berri eman zen; lehenengoan enpresetako giza baliabideei buruzko modulu bat txertatu zen eta, horri esker, esaterako, gizonen eta emakumeen parte-hartzea lantaldeetan zenbatekoa zen jakin ahal izan zen.

2013an pentsatutako beste panela "EAEko Kultura Ohiturak, Praktikak eta Kontsumoa aztertzeko panela" izan zen; prestakuntzako azterlan batean oinarrituta landu zen, eta kultura-kontsumoan izaten diren aldaketak monitorizatzea du xede, bereziki, teknologia berriak txertatzearekin lotura dutenak. "Kultura-ohiturei eta -kontsumoari buruzko panela" 2014an eta 2015ean ere egin zen; panelistak hautatu ziren (204 bi adin taldetan banatuta) eta lehenengo jasoaldiko informazio-bilketa hasi zen. Lehenengo jasoaldi horretako emaitzak 2016an ezagutarazi ziren, bigarren jasoaldiko datuak biltzen hastearekin batera; kasu horretan, euskarazko kulturari buruzko berariazko modulu bat txertatu zen.

## Azterlan kualitatiboak

10 urtetik gorako ibilbide honetan sortutako produktuei eta informazioari dagokien beste oso alderdi garrantzitsua azterlan kualitatiboak osatzen dute. Lan-ildo hori 2008. urtean hasi zen biziago garatzen, eta azterlan eta txosten kualitatiboak egiten dira, kulturari ikuspegi estrategiko eta zeharkakotik begiraturaz. KEBak era horretako 40 lan baino gehiago egin ditu bere historiako lehenengo hamarkadan eta, jarraian, lan horien lagin txiki bat aurkeztuko dugu.

## Konparazio-azterlanak eta jardunbide egokiak identifikatzea

Lehenengo multzo batean nazioko eta/edo nazioarteko esperientziak alderatzeko azterlanak sartzen dira; hainbat arlotako jardunbide egokiak identifikatu ziren, EAEko kultura-errealitatean aplikatzeko moduko agertoki posibleak diseinatzeko oinarritzat. Ildo beretik, 2008. urtean, esaterako, "Laborategi metodologikoa: Kultura-sormenaren azterketa", egin zen; nazioartean sormenari laguntzeko ziren politikak aztertu ziren (hasieran, bederatzi herrialdetan), EAEko egoera zein zen deskribatu zen eta babes edo laguntza emateko ekimen publiko eta pribatuak ere bildu ziren. Ildo beretik, 2010. urtean nazioko (Bartzelona eta Madril) eta nazioarteko (Berlin, Londres eta Marseilla) esperientziak alderatzeko azterlana egin zen, eta Euskadin sormenari laguntzeko aintzat hartu beharreko gako-elementuak zeintzuk ziren identifikatu zen. Bai azterketa hori, bai 2008ko laborategi metodologikoa –eta 2009an egindako sormenari laguntzeko politiken gaineko ikerketa– Eusko Jaurlaritzak 2011. urtean abiarazi zuen "Sormen Lantegiak" proiektuaren aurrekari direla esan dezakegu.

**Azterlan  
kualitatiboen  
barruan, KEBak  
nazioko eta/edo  
nazioarteko  
esperientziak  
alderatzeko  
azterlanak egin ditu;  
hainbat arlotako  
jardunbide egokiak  
identifikatzen dira,  
EAEko  
kultura-errealitatean  
aplikatzeko moduko  
agertoki posibleak  
diseinatzeko  
oinarritzat.**

Mota horretako beste azterlan bat "Gazteen kultura-kontsumoa" izan zen; gazteen kultura-kontsumoa aztertzeko estatistika-informazioaren azterketa xehatua egiteaz gain, EAEn eta beste hainbat herrialdetan gazteen kultura-kontsumoa sustatzeko dauden politiken ereduak aurkeztu ziren, eta bukatzeko, horri buruzko gomendio jakin batzuk proposatu ziren. Azterlan horren aurrekaria 2010. urteko "Gazteak eta kontsumo berriak" azterlana izan zen; teknologia berriek gazteen kultura-jardunbideen eremuan duten eragina berariaz aztertu zen.



2010ean, "Kulturako % 1" azterlan prospektiboan berriro ere konparazio-azterketa egin zen, baina kasu horretan, arau-esparrua Estatuko eta Kataluniako ereduak alderatu ziren, EAeko administrazioan ehuneko horretara hurbiltzeko aukera proposatu zen eta Eusko Jaurlaritzaren eremuan kulturako % 1eko horren kuantifikazioa zenbatekoa izango zen azaldu. Gai berari jarraikiz, 2010. urtean ere "Kulturaren finantzaketa-ildoak" aztertu ziren; Kataluniako Kultura Industrien Institutuak (ICIC) kultura-sektoreetarako sustatzen dituen finantzaketa-tresnei buruzko informazioa eta balioespena sistematizatzea zuen helburu.

2013an, "Kultura-industriak nazioartekotzeko ereduak" aztertu ziren konparazio bitartez; "Kultura-enpresentzako laguntza" azterlanean arrakasta-kasuak aztertu eta euskal kultura-sektorean aplikatzeko proposamena egin zen eta, azkenik, "Kultura-kontsumoa sustatzeko politikak" azterlanean, Eusko Jaurlaritzak garatutako kultura-politikak erreferentziako beste esperientzia batzuekin alderatu ziren. Azterlan mota horren beste adibide bat 2014. eta 2015. urteetan egindako "Hurbiltasuna faktorea kultura-politiketan" ikerketa izan zen, eta hurbiltasunaren kontzeptu hori aztertu zuen bi ikuspuntutatik begiratuta: ikuspuntu teorikotik, esanahia eta inplikazioak berrikusi ziren, eta aurki daitezkeen hurbiltasuneko kultura-politika moten modelizazioa egin zen; ikuspuntu praktikotik, berriz, EAetik kanpoko kasu garrantzitsuak hautatu ziren.

## **Digitalizazioa kultura arloan**

Azterlan kualitatiboen barruko beste bloke batzuk ez dira metodologiaren arabera egituratu –konparazio-azterlanak, jardunbide egokiak identifikatzekoak–, baizik eta aztertutako gaiaren arabera. Hori horrela dela, esaterako, hamarkada honen hasieratik hona, ikerketa kualitatibo askok "auzi digitala" esan diezaiokegun arlo horri edo digitalizazioak kulturaren esferan duen eraginari erreparatu diote.

2010. urtean, "Teknologia berriak, Digitalizazioa eta Kultura Industriak" ikerketarekin, teknologia berriek eta ingurune digitalak kultura-industrietan duten eragina aztertu zen (negozio-eredu berriak; produkzioa, banaketako eta ustiapeneko ereduak, finantzaketa-formulak; marketin-estrategietan iraultza ekarri duten 2.0 webguneak eta sare sozialek bultzatutako komunikazio-prozesuak; euskarri eta formatu berriek ahalbidetzen duten berehalako sarbidearen, elkarreraginaren eta nonahitasunaren ondoriozko erabilera eta kontsumo-modu berriak; negozio digitalean diharduten eragile berriak eta abar).

2011. urtean, kulturari eta digitalizazioari buruzko lan-taldeek –Kulturaren Euskal Behatokiak koordinatutakoek– proposatuta atera zen proiektu berria, eta edukietan, formatuetan, eskubideetan, hedatzean eta erabiltzaileengan eragina duten hainbat gai aztertu zituen, azken

abian diren digitalizazio-prozesuak koordinatzea eta prozesu horiek etorkizunean garatzeko zenbait jarraibide eskaintzea izanik. "Digitalizazio Mapa" proiektu horretan, azterlan kualitatibo bat –digitalizazioaren eremuko ordezkari garrantzitsuekin elkarrizketa sakonak– biltzeaz gain, nazioarteko erreferenteak bilatu ziren, baita gomendio eta orientabide orokorrak ere eredugarri eta inspirazio-iturri izan daitezkeen printzipio eta politikei dagokienez. Horrela, bada, mapa hori aurreko blokean ere sar zitekeen –konparaziozko eta jardunbide egokiak bilatzeko azterlanak biltzen zituen blokean–; hala ere, atal honetan proposatutako lan kualitatiboen antolamendua aukeretako bat baino ez dela esan behar da.

KEBak berak digitalizazioaren alde egin zuen 2011. urtean "2.0 prestakuntza" ildoak abiarazi zuenean; ikaskuntza-materialen bilduma bat da, gaien ardatzak teknologia berriak eta 2.0 kultura izanik. Bi motatako lanak ziren: koaderno monografikoak eta prestakuntza "pilulak", dinamikoagoak eta puntualagoak, sektoreko profesionalen eskaera jakin batzuei erantzuten dietenak. Horretaz gain, 2011. urtean "esperientziak" ere izan ziren, hau da aurrez aurreko 2.0 topaketak 2.0 kulturaren sektorearen barruko gaiei buruzko adituekin.

Berrikiago, 2016an, "Kultura-sektorea eta negozio-aukera berriak ingurune digitalean" azterlanean argi ikusten da gaia erabat indarrean dagoela eta KEBak interesa duela gaiarekiko.

## **Kulturaren alderdi ekonomikoak eta gizarte-itzulkina**

Krisialdi ekonomikoaren testuinguruan –gogoan izan KEBa 2006. urtean sortu zela, mundu osoan kultura sektorea ere eta bereziki gainera eraginpean hartu zuen krisialdia hasi baino bi urte eskas lehenago–, kulturaren alderdi ekonomikoei, balioari eta gizarte-itzulkinari buruzko azterlanek garrantzi berezia hartu zuten. Testuinguru horretan, KEBak –hausnarketa kualitatiboa eginez eta errealitatearen argazkia ateratzeko borondateaz gain, errealitate horretan eragiteko borondatean oinarrituta– egungo egoera ekonomikoa argitzeko ahalegina egin du.

Horrela, bada, 2011. urtean kulturarako finantzaketa-iturriei buruzko ikerketa-ildoari ekin zitzaion berriro –2010ean abiarazi zen, lehen aipatu ditugun "Kulturako % 1" eta "Kulturaren finantzaketa-ildoak" azterlanekin– eta "Finantzaketa eta kredituak kulturen" ikerketa egin zen; kulturari finantza-laguntza emateko ahalegin publikoa aztertzeaz gain, finantza-erakundeekin hitzarmenak eta akordioak egiteko aukerak ere arakatu zituen, bideratutako baliabideek efektu biderkatzailea izan dezaten. Kultura-enpresen finantza-premiari buruzko azterketa-ildo horren barruan, 2012. urtean KEBak "Ukiezinen balorazioa, kultur agenteekin eginiko finantza eragiketetan" txostena egin zuen; finantza-erakundeei zuzendutako etorkizuneko gida bat prestatzeko lehen hurbilketa izan zen, eta, gida horren bitartez, erakundeek finantza-eskaerekin lotutako kultura-proiektuak hobeto balioetsi ahal izango zituzten. 2012an ere,

“Euskal kultura sektore sortzaile eta ekoizleentzako diru-laguntza sistemen ebaluazioa eta berrikusketa” txostena egin zen, eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak EAEko kultura-sareari emandako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen eredia aztertzen zuen.

2012an landutako beste gai bat kulturaren gizarte-itzulkina izan zen; nazioartean interes handiko gaia da eta itzulkin horren neurketa aztergai izan zen, kulturaren berezko balioa agerian uzteko adierazle ekonomiko soilen ginetik. Horrela, bada, kulturaren egindako inbertsioak defenda zitezkeen, krisialdi ekonomikoaren testuinguruan. Balio horren neurketan aurrera egin beharraz jabetuta, KEBak eredu bat proposatu zuen, lehen hurbilketa modura, “Kulturarako laguntza publikoen gizarte-itzulera neurtzeko adierazleen sisteman” oinarrituta eta laguntza publikoak jasotzen dituzten proiektuek izaten duten eragina aztertzea ardatz izanik.

Kultura-programen ebaluazioaren ildoari jarraikiz, kasu honetan ikuspegi zabalago batetik begiratuta, 2012an “Kultura-kudeaketa publikoa arrazionalizatu eta lehenesteko azterketa-eredua” ere diseinatu zuen KEBak; kultura-erakundeek garatzen dituzten programak aztertu eta ebaluatzeko erraz aplikatzeko moduko tresna bihurtzea zuen helburu, erakunde horiei beren kudeaketa hobetzeko adina elementu eskaini ahal izateko eta arduradun politiko eta teknikoei erabakiak hartzeko irizpideak eskaintzeko. Txostenean, ereduaren azalpena eta justifikazioaz gain, aintzat hartu beharreko aldagaien deskribapena ere biltzen zen, baita programak ebaluatzeko lehenengo simulazioa ere, eredia kulturaren kudeaketa publikoan nola aplikatu ikusi ahal izateko.

Azkenik, 2013an “BEZaren igoeraren inpaktua EAEko kultura-sektoreetan” aztertu zen, ikuspegi kualitatibo batetik begiratuta, igoera horren zuzeneko eta zeharkako ondorioei buruzko diskurtsoak eta pertzepzioak detektatu ahal izateko.

### **Gai berriak**

Lan kualitatiboen azken multzo batean “gai berriak” lantzen dituzten azterlan eta ikerketak sartzen dira; berriztat hartzen ditugu, gai horiek kultura-eremuarekin gurutzatzen berriak diren aldetik. Bereziki azken urteetan (2014-2017), KEBaren lanean berrikuntza izan da ardatz, metodologiei eta aztertutako edukiei dagokienez. 2016. urtean, zehazki, KEBa sortu zenetik 10 urte bete zirenean, helburua da sortzen den estatistika-informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzea (adierazle sintetikoak) eta azterlan kualitatiboak kulturaren ordura arte gutxi arakatutako gaietara zabaltzea.

Azken horren adibide dugu 2011. urteko “Sareko sorkuntza eta kultura-sareak” txostena, ikuspegi hirukoitz batetik begiratuta egindakoa: 1) sarean sortzeko eta antolatzeko modu berriek dakarten

paradigma-aldaketarako hurbilketa teoriko bat lantzea; 2) horrelako erakundeak eta egiturak sustatzera zuzendutako egungo babes-esparrua eta bilakaera aztertzea, nazioartean, Estatuan eta Euskadiko errealitate zehatzean; 3) gaur egungo ingurunearekin eta joerekin bat etorriko diren kultura-politikak zehazteko baliagarriak izango diren hainbat ondorio eta orientabide ezartzea. Gaia oraindik ere indarrean dagoela ikusteko, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren argitalpen hau aipa dezakegu: *Redes culturales. Claves para sobrevivir en la globalización*; gai horri buruzkoa da, eta 2008an honako hau esan zuen: “Kulturaren sektoreak sare-sistema sendotu du eta, horretaz gain, gaur egun, sare horren sortzaile nagusietako bat dela ere esan dezakegu” (Nicolau Martí, in Brun, Tejero eta Canut Ledo, 2008).

KEBak gai berriekiko duen interesaren adibide berriagoak ere badira; esaterako, 2016an “Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan” azterlana egin zuen, eta lehen aldiz aztertu zuen KEBak emakumeek zenbateko presentzia duten bi sektore horietan. 2014. urtean, UNESCOk egindako *Gender Equality: Heritage and Creativity* txostenean nabarmentzen zenez, premiazkoa zen eztabaida sakonagoak, ikerketak eta sentsibilizazio-ekintzak egitea ondarearen eta sormenaren eremuetan gizon, emakume eta haurrentzako eskubideen, erantzukizunen eta aukeren berdintasuna lortzeko beharrari buruz (UNESCO, 2014). Generoaren gaiarekiko KEBaren lehen hurbilketa horiek, zalantzarik gabe, eztabaida horietarako aberasgarri izango dira.

Urte hartan bertan, “Kulturaren eta pobreziaren arteko erlazioaren inguruan” azterlana egin zen. Berrero ere, gai horrek maila orokorrean interes handia sorrarazten duela adierazten duten lan akademiko eta nazioarteko erakundeen txosten ugari daude. Horren adierazgarri da UNESCOk 2013ko maiatzean Hangzhou-n (Txina) egindako Nazioarteko Biltzarra: *Culture: Key to Sustainable Development*; biltzarreko gaiak izan ziren, besteak beste, kulturaren, pobreziaren eta ongizatearen arteko erlazioa, edo pobreziaren murrizketa kulturaren ikuspegitik begiratuta.

Azkenik, 2016an KEBa Bertsozale Elkartearekin elkarlanean hasi zen; Bertsozale elkarteak bertsolaritzari buruz urtetan pilatutako informazioa eta ikerketak gordetzen ditu. Bertsolaritza bera ez da gai berria, baina elkarlan berri horren bitartez, KEBak sektore horrekiko –beste sektore batzuekin alderatuz gero– izan duen gabezia historiko bat beteko da. Elkarlanaren helburua da bertsolaritza azterketarako esparrutzat txertatzea, gainerako sektoreekin batera, nabarmentzeko moduko sektorea baita sorkuntzaren eta gizartean duen errotze mailaren ikuspegitik begiratuta. Horretarako, 2016an bertsolaritzaren jarraipena egiten hasi zen, bai jardueraren ikuspegitik begiratuta (prestakuntza, jardueren tipologia, bertaratutakoak eta abar), bai ikuspegi profesionaletik begiratuta, betiere oinarritzat hartuta

eskura dagoen informazioa, interes-adierazleen identifikazioa eta informazioa eta jakintza partekatzeko elkarlan-prozesua zabaltzea.

Etorkizuneko erronken identifikazio prospektibo moduan, honako txosten honen lehen alea aipatu behar dugu: "Kulturaren egoerari buruzko biurteko txostena 2015". Lan hori KEBaren eta EHUren artean egin zen, elkarlanean, eta euskal kultura-errealitatearen egoerari buruzko diagnostiko independentea egin zuten, etorkizuneko erronkak identifikatzeko eta jarduteko proposamenak iradokitze asmoz. Txostena Ramón Zallok zuzendu zuen, eta bost espezialistak osatutako talde batekin egin zuen lan kulturaren egoera balio-katearen ikuspegitik aztertzeko: sorkuntza/ikerketa/prestakuntza (Eneko Lorente); produkzioa/edizioa (Miguel Ángel Casado); banaketa/hedapena/erakusketa (Pablo Malo eta Kepa Sojo); ohiturak eta kontsumoa (Josu Amezaga). KEBak iritziak eta pertzepzioak biltzeko prozesua koordinatu zuen; kultura-arloko 93 eragilek hartu zuten parte prozesuan.

# ONDORIO GISA: KEBa ETA NAZIOARTEKO AGENDA KULTURA-ARLOAN

**Bere historian,  
KEBak jakin izan du  
kultura-errealitate  
aldakorraren  
nondik norakoak  
jasotzen, beste  
eragile batzuekin  
sinergiak ezarrita  
eta Europako eta  
nazioarteko  
kultura-arloko  
eztabaida  
nagusiekin  
konektatuta.**

Ukaezina da KEBak jakin duela kultura-errealitate aldakorraren nondik norakoak jasotzen, ez soilik bere jarduteko eremu geografikoaren barruan –EAEn edo Euskal Herrian–, baizik eta urrunago ere, beste eragile batzuekin sinergiak ezarrita eta Europako eta nazioarteko kultura-arloko eztabaida nagusiekin konektatuta.

Nazioarteko kulturari buruzko eztabaida horietan txertatuta dagoela adierazteko, zera aipa dezakegu, KEBak kultura-arloan nazioartean garrantzi handia duten dokumentuetan xedatutako lehentasunetan sakontzen duten lanak egin izan dituela, hala nola UNESCOren Kultura Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsalean –UNESCOren Konferentzia Orokorrean onartutakoa 2001. urtean–. Adierazpenari atxikitako Ekintza Plana estatuek ez ezik, gobernuz kanpoko erakundeek ere jarraitu behar zuten kultura-proposamenak diseinatzeko garaian, eta guztira 20 ekintza biltzen zituen: besteak beste, kultura-ondarea kontserbatzea, hizkuntza-ondareari bereziki erreparatuta; “alfabetatze digitala” sustatzea maila orokorrean, eta kultura-industriak herrialde guztietan ezartzea. Gai horiek guztiak aztertzen ahalegin handia egin izan du KEBak.

Halaber, 2004ko Kulturaren Agenda 21 dokumentua erreferentziakoa izan zen hiri eta tokiko gobernuentzat, eta lehentasunezko hainbat ildo ezarri zituen. Dokumentu horren arabera, tokiko gobernuak kultura arloan hartu beharreko erantzukizun garrantzitsuenetakoak honako alderdi hauekin loturik daude: kulturarako sarbidea izatearekin, ikus-entzuleak sortzearekin, kulturaren eragina ebaluatzearekin (kultura-adierazleak), kultura-ondarearekin edo kulturaren dimentsio digitalean sarbidea izatearekin, besteak beste (UCLG, 2004). Kasu honetan ere, KEBak gertutik jarraitu ditu gai horiek.

KEBak garatutako kulturaren finantzaketari buruzko ikerketa-ildoak –lehen aipatu ditugun hainbat azterlan biltzen ditu– Europako agendan ere jasotzen da, 2010. urteko “Europa 2020 Estrategiak” markatutako testuinguru batean; krisialdi ekonomikoari aurre egiteko eta gaitzetzeko estrategia horrek hiru lehentasun ezarri zituen: zentzuzko hazkundera, iraunkorra eta inklusiboa. Dokumentuaren ardatza ez da kultura, berariaz, baina zenbait gai kulturarekin zuzenean lotuta daude, jakintzan, berrikuntzan eta gizarte- eta lurralde-koehesioan oinarritutako jakintza sustatu nahi duen estrategia den aldetik. Gizarte digitala garatzea gomendatzen da, besteak beste, estrategia horretan, zentzuzko hazkundera (*smart growth*) lortzeko, eta KEBak ere arreta handia eman dio gai horri.


KEBa Europako eta nazioarteko eztabaida horietan txertatuta dagoelako beste adierazgarri bat 2013. urteko “Kultura- eta sormen-industriak. Europako ikuspegitik egindako eztabaida teorikoa” txotena da; kultura- eta sormen-industriak, Europar Batasunak bultzatutako sustapen-politikak eta sektore horietan eragina duten EAeko politikak aztergai hartuta, kontzeptu-esparruaren ikuspegi sintetiko bat ematen du txostenak. Gai hori funtsezkoa zen –eta funtsezkoa da, gaur egun oraindik ere– Europako agendan; esaterako, 2010ean “Green Paper, unlocking the potential of cultural and creative industries” (European Commission, 2010) argitaratu zen. Kultura- eta sormen-industriak lehentasunezko arloa ziren, halaber, EU Work Plan for Culture 2015-2018 (Council of the EU, 2014) planean ere; kasu horretan, “Sormen- eta kultura-sektoreak: sormen-ekonomia eta berrikuntza” (*Cultural and creative sectors: Creative economy and innovation*). EBaren lan-egitasmoan ez ezik, UNESCOren Kultura Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala ezartzeko Ekintza Planean ere lehentasunezko gaia zen hori, lehen aipatu dugunez. KEBaren txostena aipatu dugu lehen, baita Arteei eta Kultura Industriei buruzko estatistika-eragiketa handiak eta beste azterlan sektorial batzuk ere; horiek guztiek nazioartean garrantzi handiko gai horrekiko konpromisoa adierazten dute.

2010. urtean, KEBak “Kultura-diplomaziari buruzko txostena” egin zuen, eta kontzeptu hori aplikatzearen ondorio praktikoek gaineko hausnarketa egiten zen txostenean, gaiari buruzko erreferentzia bibliografiko garrantzitsuenetan eta kasu praktikoek azterketan oinarrituta. Urtebete geroago, 2011ko maiatzean, Europako Parlamentuak EBaren kanpo-ekintzaren kultura-alderdiei buruzko ebazpena (*Resolution on the cultural dimensions of the EU's external actions*) onetsi zuen; horrekin, kultura-diplomazia Europako kultura-agendaren ardatzetako bat dela berretsi zen. Berrikiago, gainera, Europako Batzordeak *Cultural Diplomacy Platform* abiarazi du, hau da, Europar Batasuneko kultura-arloko kanpo-harremanetarako eragile nagusiak biltzen dituen plataforma. Era berean, *EU Work Plan for Culture 2015-2018* (Council of the EU, 2014) planean identifikatutako lehentasunezko arloetako bat “Kultura-aniztasuna, kultura EBaren kanpo-harremanetan eta mugikortasuna sustatzea” (*Promotion of cultural diversity, culture in the EU external relations and mobility*) izan zen.


Amaitzeko, “Publikoei buruzko azterlana” guztiz bat dator Kulturaren Agenda 21eko funtsezko gai batekin eta EBk 2014an abiarazitako kultura-arloko *Creative Europe* finantzaketa-programaren ikus-entzuleak garatzeko lehentasunarekin (*audience development*). Halaber, Europako Batzordeak gai horri buruzko konferentzia bat ere antolatu zuen: *European Audiences: 2020 and beyond*. Publikoei buruzko azterlan hori 2014-2015 epealdian egin zuen KEBak, ikuspegi teoriko-praktiko batetik begiratuta, eta publikoen garapenari buruzko kontzeptu-esparrua ezartzeaz gain, nazioarteko kultura-erakundeetatik ondorioztatutako jardunbide egokien adibideak ere aurkeztu zituen.

# KEB: 10 URTE TESTUINGURUAN KOKATUTA


OVC






CAE



Internacional







# KEBa DATUETAN

## KEBaren produktu nagusiak

“Estatistiken eta azterketen bilduma”:

# 60

argitalpen  
kontsulta daitezke

“Arteak eta Kultura Industriak” sektoreko:

# 46

argitalpen

8	23	6	3	6
Arte eszenikoei buruz	Liburuari buruz	Musikari buruz	Ikusizko artei buruz	Ikus-entzunezkoari buruz

“Ondarea” sektoreko:

# 14

argitalpen

1	8	3	2
Artxiboari buruz	Museoei buruz	Liburutegiari buruz	Digitalizazioari buruz

Zeharkako

# 10

argitalpen

# 31

txosten eta  
argitalpen

# 54

adierazle multzo,  
kontsulta dinamiko  
egiteko prest

# 28

sektorialak

(6 sektoretakoak)

# 26

zeharkakoak

# 75

Kulturkaria albisteei  
buruzko buletinak

# 4

Kultura-behatokien  
nazioarteko jardunalditan  
parte hartu da


# +50

ekitaldi, ikastaro,  
prentsurreko eta  
lantalde

## KEBaren estatistika nagusiak



## KEBaren aurrekontuak (eurotan, 2006-2017)



# ERANSKINAK

Eragiketak eta Azterketa Estatistikoak

Kulturaren Euskal Behatokiaren adierazleak

Kulturaren Euskal Behatokiaren azterlan eta argitalpenak

Kulturaren Euskal Behatokiaren urteko Jarduera Planak

Kulturaren Euskal Behatokiaren urteko Oroitza Txostenak

*Kulturkaria*: hilean behin argitaratzen den albiste-buletina

# ERREFERENTZIAK

Brun, Javier (zuz.); Tejero, Joaquín Benito eta Canut Ledo, Pedro (2008). *Redes culturales. Claves para sobrevivir en la globalización*. Madrid: AECID.

Council of the EU (2014). *Draft Conclusions of the Council and of the Representatives of the Governments of the Member States, meeting within the Council, on a Work Plan for Culture (2015-2018)*.

European Commission (2010). *Green Paper – Unlocking the potential of cultural and creative industries*.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila (2004). *Kulturaren Euskal Plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Kultura Saila. *25/2006 DEKRETUA, otsailaren 14koa, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duena*. 42. EHAA, 2006ko martxoaren 1ekoa.

Kultura Saila. *AGINDUA, 2009ko ekainaren 11koa, Kulturako sailburuarena, Kulturaren Euskal Behatokia arautzen duena*. 124. EHAA, 2009ko uztailaren 1ekoa.

Ortega Nuere, Cristina (2010). *Observatorios Culturales. Creación de mapas de infraestructuras y eventos*. Bartzelona: Ariel.

UCLG-United Cities and Local Governments. (2004). *Agenda 21 for Culture*.

UNESCO (2005). *Hacia las sociedades del conocimiento*. Paris: UNESCO.

UNESCO (2014). *Gender Equality: Heritage and Creativity*. París: UNESCO.



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

